

ALMUDENA OTAOLA

Candidata al Senado por Álava/ Senaturako Arabako hautagaia Vitoria-Gasteiz 2019-04-16

Balioko duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko duena.

El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.

Edozein gizartetan, oso garrantzitsua da azpiegitura sendoak edukitzea, oinarrikoa da pertsona eta merkantzien mugikortasuna bultzatzeko.

Gure industria emankorra izan dadin, azpiegiturak beharrezkoak dira, eta jasangarriak izan behar dira gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspuntutik.

EAJ-k beti lan egin du ikuspuntu honetatik, bai Euskadin eta baita-Bruselasen edo Madrilen ere.

EAJ Euskadiren alde mugitzen da. Beste alderdiak, hau da PP, PSOE edo besteak ez dira Euskadiren alde mugitzen. Zurea, gurea da.

Beste Alderdiak OFF ziren bitartean, EAJ ON egon da beti. Madrilen borroka hutsean zebiltzan bitartean, EAJ akordioak lortzen zebilen: Forondan hogeita lau orduko zerbitzua jartzen, Arasur-Jundiz-Foronda ardatza sustatzen, Gasteizen abiadura handiko tren lurperatzea lortzen.

Gure ekonomia indartzeko premiazkoak dira azpiegituren proiektu horiek. Araba Europara begiratzen dago. Horregatik, oso garrantzitsua da Madrilen talde parlamentario indartsu bat izatea. Estatuak abiadura handiari dagokionez hartu dituen konpromisoak bete behar ditu.

Gure industria eta ongizatea garatzeko azpiegiturak ezinbestekoak dira, Europarekin konektatuta egon gaitezen.

Euskadik mugitzen gaitu. Arabak mugitzen gaitu. Horregatik aukera bakarra EAJ da, eman zure botoa.

Orain eta hemen, EAJ.